

**BIKAIN ZIURTAGIRIAK
CERTIFICADOS BIKAIN**

2016-12-19 Palacio Kursaal 19-12-2016

Lehendakariaren hitzaldia –Discurso del Lehendakari

Herri agintariok, CONFEBASK-eko eta enpresetako ordezkariok, arratsalde on.

Nire lehen hitza, nola ez, oholtza honetara igo zareten 52 enpresak zoriontzeko da. Zorionak eta eskerrik asko.

Eskerrik asko, euskarak elkar lotzen gaituela erakusten diguzuelako. Baita ere, euskara eta kalitatea eskutik helduta doazela agerian jartzen duzuelako.

Bikain ziurtagiriaren ibilbideak bederatzi urte bete ditu eta, aurten, marka deigarria lortu dugu. Esan egin da baina errepikatu egingo ditut, datu batzuk.

-Ziurtagiria jaso duzuen 52 enpresa eta erakundeetan, guztira 21.500 pertsonak lan egiten duzue.

-Aurreko 8 urteetan, batz bestea, 4.400 langile inguru biltzen zituzten Bikain eskuratzen zuten enpresek.

Jauzi garbia da, notizi pozgarria. Honekin batera, azkeneko hogeitau urte hauetan, LanHitz programaren eskutik, 442 enpresetan diseinatu eta garatu dira euskara planak. Jaurlaritzak, 28 milioi euro inbertitu ditu lan lerro horretan.

Gaur argi ikusten ari garenez, emaitzak heltzen ari zaizkigu. Adostasunaren eredutik, lankidetzaren publiko-pribatuaren bidetik, areagotzen ari dira emaitzak.

Avanzamos por el buen camino. Somos conscientes de que si cediéramos por un momento a la inercia, si cayéramos en algún tipo de autocomplacencia, los avances registrados estos años darían paso al estancamiento y, a continuación, al retroceso.

Desde el Gobierno Vasco, a través de la colaboración y el acuerdo, planteamos medidas para que el uso del euskera avance, también en el ámbito de la empresa y la actividad económica. Nuestro empeño es conocer, a fondo, las dinámicas de éxito en la implantación del euskera como lengua de gestión y

trabajo en la empresa. Este es el objetivo del programa EUSLAN, dar a conocer estos modelos de referencia y buenas prácticas.

EUSLAN programaren bidez ikasten ari gara, punta-puntako 12 industria enpresen eskutik, nolako dinamikak sustatu behar diren, euskara lan hizkuntza ere izan dadin. Ibilbide horretan ikasitakoak aplikatuko ditugu, euskara eta lan munduaren lotura egunez egun estuagoa eta sendoagoa izan dadin.

Hor dugu erronka: gure gizarteak hezkuntzaren bidez lortzen duenak jarraibidea izan dezala lanaren esparruan. Euskaraz hezi eta prestatu diren euskal hitzunen belaunaldiek izan dezatela lanean ere euskaraz jarduteko bidea zabalik.

El euskera avanza también en el mundo profesional y de la empresa, en el ámbito socioeconómico y laboral. He subrayado el salto que ha experimentado Bikain este año. Se ha quintuplicado el número de personas que trabajan en las empresas que han obtenido este certificado de calidad.

Nuestro reto es consolidar lo logrado y mantener esta progresión positiva. Seguir planteando medidas que cuenten con el compromiso de la empresa y que sirvan de modelo para la incorporación de nuevas generaciones.

Langintza horretan, askotariko eragileekin ari gara bidea egiten. Enpresariekin eta langileekin, bereziki. Nola ez, Bikain Ebaluatzaileen Kluba osatzen duten pertsonekin. Guztira 190 ebaluatzaile aritu dira, aurten, enpresak ebaluatzen.

Musu truk aritu zarete, urtero bezala, eta oso esker berezia adierazi nahi dizuet. Mila esker ebaluatzaile guztioi eta, zorionak berriz ere, gaur Bikain ziurtagiria eskuratu duzuen 52 enpresei eta 21.500 langileei. Erreferentea zarete, eredu, euskara gero eta gehiago, gero eta naturaltasun handiagoz erabili nahi duen euskal gizarte osoarentzat.

Euskara erabiltzeko plaza bat eskaini eta proposatzen digu Euskararen Txantxangorriak: “eman hegoak euskarari.”

Zuek paparretik lantokira eraman duzue Txantxangorria eta ezin hobeto hauspotu duzue bere hegaldia.

Zorionak eta eskerrik asko denoi.